

Topalekua

57zk. 2010ko maiatza

mayo 2010 - n.º 57

pág. 1: *Gizarte Kontseiluak Euskal Herriko Unibertsitatea nazioartera zabaltzeko proiekturik onenari saria sortu du*

pág. 2 y 3: *EHUk badu adierazleen sistema gizarteari kontuak emateko*
pág. 4: *Campusak zuzentzeari eta kudeatzeari buruzko ikerketa*

GIZARTE KONTSEILUAK EHU NAZIOARTERA ZABALTZEKO PROIEKTURIK ONENARI SARIA SORTU DU

Bilbon, iragan maiatzak 5 ospatu zen Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuran erabaki da EHU NAZIOARTEAN HEDATZEKO SARIAren deialdia ateratzea, 40.000 eurokoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaintza nazioartean ezagutzera emateko eta atzerriko ikasleak bere geletara erakartzeko proiektu onenarentzat.

Aipaturiko saria eratzeke orduan, Batzordeak kontuan izan du gaur egun jakintza trukatzek duen garrantzia eta horrek duen eragin ekonomikoa (Erresuma Batuan ikasle atzerritarren matrikulek bilioi bat Libera Esterlinako irabaziak eman dutela eta herrialdeko ekonomiari ia 8 bilioi Libera Esterlinako ekarpena egin dutela kalkulatu da), zein Europaren bat egiteak sortu dituen aukerak eta gorantz doazen ekonomiak duten garrantzia ere.

EHUren taldeei dago zuzenduta Saria eta haien proiektuetan, besteak beste, gure Unibertsitatearen eskaintzaren alderdi sendoak eta onurak, atzerriko ikasleak komunitatean barneratzeko gaitasuna, Euskadiraiko interesgarriak diren merkatuen analisia, nazioarteko unibertsitate nagusien eskaintzarekin konparazioa, lortu nahi diren helburuak eta haiek lortzeko estrategia bildu beharko dituzte. Eta, hori guztia, finantzazioa edo onura zuzenak zein eragindakoak ahaztu gabe. 2010eko uztailak 30 baino lehen aurkeztu beharko dira proiektuak Gizarte Kontseiluaren egoitzan. www.gizarte-kontseilua.com-en irakur daitezke Nazioartean Hedatzeko Gizarte Kontseiluaren Sariaren oinarri guztiak.

Saio berean, osoko bilkurak unibertsitate-zerbitzuen Adierazle-sistemari buruz eztabaidatu zuen; hain zuzen ere, sistema horrek, hoguei adierazle gakoren bitartez, EHUren helburu sozialen betetze-maila neurtzea eta jardueraren kontu ematea ahalbidetu zuen (txosten horri buruzko informazio gehiago 2. eta 3. orrialdeetan). Halaber, egungo egoera aztertzeko, diagnostikoa egiteko eta campus anitzeko antolaketa-eredu berria proposatzeko helburua duen “EHU-ko Campusetako Gobernurako eta Kudeaketarako Egitura eta Funtzioak Unitate Autonomo Oso gisa ezartzea” azterketaren (informazio gehiago 4. orrialdean) azken txostena aztertu zuen.

EHUK BADU ADIERAZLEEN SISTEMA GIZARTEARI
KONTUAK EMATEKO

Unibertsitatearen zerbitzuen **Adierazle-sistema ere eztabaidatu zuen** Gizarte Kontseiluaren azken Bilkurak. Funtsezko hogeitaz adierazleren bitartez, EHUn gizarte helburuak zein mailatan betetzen diren ikustea eta haren jardueren inguruko kontuak ematea ahalbidetzen duen ikerketa. Aipaturiko 20 adierazleen multzoak unibertsitatearen zerbitzuen ebaluazioa errazten du eta antzerako ezaugarriak dituzten beste unibertsitateenekin konparazioa egitea ahalbidetzen du.

Adierazleen Sistemaren helburua gizarteari EHUn helburuak bete diren edo ez diren inguruko eta haien ekarpenen balioaren eta lortu diren emaitzen inguruko informazio ebaluagarria eskaintzea da, dagoen informazio ugaria laburbilduz eta hari lehentasuna emanaz. Emaitza adierazleen-multzo bat da zeinak:

- Gizartearen eta interes-taldearen oinarritzko galderei eta jakin-minei erantzuten dieten
- Haren esperientzia dela eta erreferentzia diren eremuetan kontuak aurkezteko eskema gehiengotik datozen adierazleak dira
- EHUK bere Plan Estrategikoan zehaztutako helburuei erantzuten diete

EHUn irudi fidagarria lortzen da funtsezko zortzi arlotan kontuak emateko orduan: testuingurua, erakundearen irudia, estaldura, prestakuntza, ingurunearen egokitzeta, ikerkuntza, hizkuntza-normalizazioa eta erantzukizun soziala.

Ikerketan datu absolutuetatik hasi eta adierazle bakoitzaren analisisa arte batzen ditu ondorengo taulan laburbildu diren zenbaki absolutuak:

DATU ABSOLUTUAK	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09
Graduko ikasketetan EHUn matrikulatutako ikasle emakumeak (kop.)	26.392	25.415	24.652	26.285
Graduondoko ikasketetan matrikulatutako atzerriko unibertsitateetatik etorritako ikasleak (kop.)	—	512	645	588
Praktikak enpresetan egiten diharduten ikasleak (kop.)	3.801	3.691	3.558	3.390
EHUn matrikulatutako ikasleak guztira (kop.)	—	48.408	47.236	45.781
Graduko ikasketetan EHUn matrikulatutako ikasleak guztira (kop.)	47.104	45.465	44.164	42.657
Graduondoko ikasketetan EHUn matrikulatutako ikasleak guztira (kop.)	—	2.943	3.072	3.124
Euskal Herrian matrikulatutako unibertsitateko ikasleak guztira (kop.)	66.322	63.691	61.649	59.118
Euskaraz egin daitezkeen derrigorrezko kredituak (kop.)	13.012	14.594	15.402	15.431
Ikasketa Planean eskatzen diren derrigorrezko kredituak (kop.)	20.475	20.749	20.079	20.024
Ikerketa: Ikerketari zuzendutako funtsak	46.366.576	48.807.553	60.761.625	54.779.880
Ikerketa: Zuzenean kontratatutako datuak diru-sarrerak	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837
PDI doktore emakumea (kop.)	933	994	1.048	1.104
PDI doktorea guztira (kop.)	2.564	2.673	2.762	2.842
Kalitatea goraipatzen duten doktoretza-progamak (kop.)	22	27	27	32
Guztira eskaintzen diren doktoretza-progamak (kop.)*	79	78	79	77
Argitalpen zientifikoak (kop.)	1.027	1.146	1.345	1.586
Defendatutako doktoretza-tesiak (kop.)	251	229	268	280
EHUn gastu arruntak	278.398.337	300.864.442	326.082.098	391.626.941
EHUn transferentzia arruntak	231.157.554	268.877.890	292.252.209	361.489.916

*: 2008-2009 memoriako 3.27 taulatik ateratako zenbakiak.

Era berean, eta 20 adierazleetarako bakoitzarentzat, datu zehatzak eta konparagarriak eskaintzen dituen ikerketa zehatza aurkeztu du lanak. Adibide gisa, ondorengo emaitzak eman dituzte 6 eta 8 adierazleek:

BARNERA TZE-MAILA	6. EHUn ESTALDURA-TASA											
ADIERAZLEAREN DEFINIZIOA	Adierazlea	98/99	99/00	00/01	01/02	02/03	03/04	04/05	05/06	06/07	07/08	08/09
$\frac{\text{EHUn 1. eta 2. Zikloko matrikulatutako ikasle kop.}}{\text{Euskadiko unibertsitateko 1. eta 2. Zikloetako ikasle kopurua}} \times 100$	EHUn estaldura-tasa (%)											
	EHUko ikasleak 1. eta 2. Zikloko unibertsitateko ikasleekiko	69,2	68,1	67,7	67,7	67,7	68,2	69,1	71,0	71,4	71,6	72,2
	EHUko ikas. 1. eta 2. Z. ikasleak 18 eta 25 urteko populazioarekiko (%)	22,7	22,5	22,0	21,9	22,6	23,3	24,1	24,8	24,9	25,1	25,0
	EHUko matrikula berriak aurreko izen ematekiko (%)	50,3	52,5	52,0	55,4	65,7	70,9	76,0	74,4	69,0	68,2	70,7

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea Zifratik. 2008-09 eta Eustat.

EHU EAeko unibertsitate pribatuekin lehiatzeaz gain, Erkidegotik kanpo dauden beste goi hezkuntzako sistemekin eta unibertsitateekin ere lehiatzen da. Izan ere, 2007-2011 Plan Estrategikoan identifikatu diren mehatxuetariko bat *"hainbat arlotan inguruko unibertsitateek eskaintzen dituzten ikasketa espezializatuak"* da, eboluzio demografikoa dela eta, gero eta gutxiago diren ikasleak hartzeko eta erakartzeko lehiatzen direnak.

EHUk Euskadiko unibertsitatearen batean matrikulatutako pertsonak hartzen dituen edo ez aztertzen badugu, Eustaten arabera, 2008-2009 ikasturtean, unibertsitateko 1. Eta 2. Zikloetako ikasleetatik %72 zegoen EHU n matrikulatuta (59.118tik 42.657). Azken 10 urteotan %67 eta %76 bitartean ibili da.

Ehuko ikasle kopurua asko gutxiagotu bada ere (%30 azken hamarkadan), unibertsitate pribatuek are jaitsiera handiagoa jasan dute (%40 baino gehiagokoa).

Unibertsitateko ikasleen banaketa horren orde (pribatua/publikoa), 18 eta 25 urte bitarteko populazioa zein mailatan estaltzen duen aztertzen badugu (azken hamarkadan %36 gutxitu dena), EHU %25 bameratu da 2008-2009 ikasturtean. Behatutako segidaren gehienezko balioari dagokio balio hori, 1998-199 ikasturteari dagokiona; gutxieneko balioa %21,9 da, 2001-2002 ikasturteari dagokiona hain zuten.

Azkenik, interesgarria da baita ere unibertsitatearen selektibitatearen bitartez initsi diren ikasleen portzentajea kalkulatzeko egindako aurreinskripzioekiko; kasu honetan, %71 portzentajea %68ra jaitsi da Lanbide Heziketatik iristen direnak kontuan hartzen badira. Aipatu beharra dago ratio horiek 1996-2001 aldian lortu ziren batez bestekoen gainetik daudela, orduan %55 ere ez baitzen lortu

2007-2008 ikasturtean eta CYD 2008 Txostenean (Fundación Conocimiento y Desarrollo) bildutako datuen arabera, EHUk eskaintako matrikula/eskaintza ratioa %81 ekoa izan zen. %84 izan zen unibertsitate publikoen multzoak lortutako batez bestekoa. Nafarroako Unibertsitateak lortu zuen doikuntza handiena, eskaintako plazetatik %93 matrikularekin eta gutxien Errioxako Unibertsitateak, %40arekin.


PRESTAKUNTZA

8. ETEKIN-TASA

ADIERAZLEAREN DEFINIZIOA

$$\frac{\text{Ikasleak gaitututako kredituen kop.}}{\text{Matrikulatutako kreditu kopurua}} \times 100$$

ETEKIN-TASA EZAGUTZA EREMU BAKOITZEKO




Adierazle honek ikasleek gaitututako kredituen zenbatekoaren eta haiek matrikulatutako arteko harreman portzentuala neurtzen du eta ikasleen zein erakundearen eraginkortasuna neurtzen du jardura akademikoarekiko.

Espainiako Unibertsitatea Zifratan txostenaren arabera, EHU n 2006-07 ikasturtean emandako titulazioen barneratutakoaren batez besteko etekina %65ekoa izan zen. Estatuko Unibertsitate-sistemak lortutakoaren parekoa, hain zuten. G-9 taldea osatzen duten unibertsitateen aldean, Nafarroari dagokio gehienezko etekin-tasa, %69,4 hain zuten. EHU da bigarren, Zaragozakoarekin parekatuta.

Ezagutza arloei dagokienez, Osasun Zientziak goraipatu behar ditugu oraingoan ere, %84ko tasarekin. Ikasketa Teknikoen etekin-tasa askoz ere atzerago dago, %57arekin eta baita gainerako arloena, %65 eta %69 bitartean. Aztertu diren unibertsitate guztietan ikusi da etekin altuena Osasun Zientzietan izaten dela.

2006-2007 ETEKIN-TASEN ALDERAKETA



■ G-9 Taldea
■ EHUren pareko aurrekontua duten beste unibertsitateak

Iturria: Espainiar Unibertsitatea Zifratan.

Gizarte Kontseiluaren web orrian, www.gizartekontseilua.com, irakur daiteke 20 adierazleei buruzko informazioa eta beste unibertsitateekin egin den konparazioari buruzko ikerketa osoa.

CAMPUSAK ZUZENTZEARI ETA KUDEATZEARI BURUZKO IKERKETA

“EHUren Campusa Unitate Autonomo Bateratu gisa Zuzentzeko eta Kudeatzeko egiturak eta funtzioak ezartzea” ikerketaren azken txostena ere eztabaidatu zuen iragan maiatzak 5ean egin zen Bilkurak. Haren helburuak egungo egoera aztertzea, diagnosia egitea eta multicampus moduan antolatzeke eredu berria proposatzea ziren.

Antzerako errealitateak dituzten hainbat unibertsitatearen esperientzia eta antolaketa adituak direnen ekarpenak kontuan izan dituen ikerketak dio EHU deszentralizatuta dagoen unibertsitatea dela, nahiz eta oraindik ere unitate autonomoetan garatutako multicampus eredurantz eboluzionatzeko gaitasuna duen, nazioartean lehiatzeko gaitasuna areagotzeko.


Aipaturiko diagnosia ikusita, ondorengo printzipioetan oinarritutako multicampus moduan antolatzeke eredu proposatzen du lanak:

- Erakundea zuzentzeko gaitasuna hobetzea
- Gobernuaren muina sendotzea.
- Kudeaketa deszentralizatzea.
- Kudeaketa profesionala bihurtzea
- Lurraldea dinamizatzen duen agente gisa jardutea
- Berrikuntza sustatzea
- Atzerriarekin harremanak gehitzea
- Zeharkakotasuna eta diziplina aniztasuna sustatzea
- Barruan eta gizarteari kontuak azaltzea indartzea
- Kalitatearen hobekuntza eta ebaluazioa azpimarratzea

Hau da txostenaren ondorioa: Gaur arte EHUK multicampus erakunde gisa egin duen ibilbidea, Gobernu Kontseiluak onartutako oinarrien dokumentuan oinarrituta laster egingo duenarekin batera, oso adierazgarria dela erreferentzia gisa hartu diren multicampus unibertsitate erakundeetan.

5. Campus anitzeko antolaketa-eredu berriaren proposamena

5.1. Proposamena inspiratzen duten printzipioak



Beste hainbat gai

Bukatzeko, aurrekontuetan hainbat aldaketa, ordainsari osagarrien esleipen berriak eta EHUK Maite Fundazioan (INGURUMENA, BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA) eta Langune Elkartean parte hartzea, Innobasquek hizkuntzen industria sustatzeko atera duen ekimena, zeinetan hogeita hamar inguru enpresak eta erakundek parte hartzen duten, eta ikasketa osagarrietako lau ikastaroko matrikulen prezioa konbalidatzea onartu du Osoko Bilkurak. Saio berean, Osoko Bilkurak Ana M^a Deusto, José M^a Ormazabal eta Mikel Iriondo izendatu dituen Unibertsitateko Gobernu Kontseiluan Gizarte Kontseilua ordezkatzeko eta Paulino Corcuera Unibertsitateko Herri Hezkuntzaren Koordinazio Kontseiluan ordezkatzeko.